

«Euskal Herritik kanpo dagoenak badaki itsasoa urrun izateak zer esan gura duen»

Lexuri Gallastegik 'Itsasoa eta lurra' dantza ikuskizuna emango du Barakaldon

Patxi Gaztelumendi / Getxo

Itsasoaren soinuak ireki-ko du gaur iluntzen Euskal Koreografo Berrien 1. U. Erakusketak. Lexuri Gallastegik Orroet aldearen bultzadaz presatatu duen Usasoa eta lurra lana izango da Barakaldon ikusi ahal izango den lehen koreografia.

SEI bat urte egin zituen Lexuri Gallastegik New Yorken. Bertan Martha Graham irakaslearen eskolan graduatu zen dantza garaikidean, eta Pertan egin zituen urrats garrrantzitsuenak. Euskal Hea itzultitakoan, hainbat lan sortu ditu, «beti bertako gaiak lotuak, hemengo gauza eta oñuturëkin». Urteotan berangoarrak koreografia labur batzuk aurkeztu ditu: Minaren garrasia, Ujuju, Ni, Loala eta Andrak. Koreografia horiek guztiak Orroet aldearekin burutu ditu Lexuri Gallastegik; haietako batzuk, gainera, New Yorken, ere eman ditu ezagutzera dantzari b. Azken bi hilabeteotan Orroet eko bost neskak buru-belarri aritu dira gaur arratsaldean aurkeztu. behar duten Itsasoa eta lurra prestatzen. «Laguntza ùdkia izan dugunez, dendena guk prestatu behar izan dugu: arropak, argia, musika ...». Rsasoaren soinuak, olatuek, bat egiten dute lurrarekin, eta dantzarien gorputzek itsasoaren mugimendua eta lurraren oinarria islatuko dute. «Gerripetik gora gorputz atalak mugitzean datza Gra-



MIKEL MARTINEZ

Lexuri Gallastegi koreografoak bere muntaiaren berri eman zion EGUNKARIari atzo Getxon.

hamen estiloa, nolabait gorputzaren enborra higituz; guk gure dantzak euskal dantzen ukitu eldn nahasten ditugu, musika eta perkusioa lagun», adierazi zuen Gallastegik atzo, taldea entseatzen ari zelarik. Urak lurrari egiten dio bide, eta Huts Hots txalapartarien doinuak gaina hartzen du: bortizki entzungo da egurraren hotsa, bost dantzariek berean jarraitzen duten bitartean. Geroago, Iker Zabalaren txirulak txalapartari gain hartuko dio. Bi kanta. Bukaeran, Atxarte Lopez de Munianen irrintzi luze batek emango dio bukaera Itsasoa eta lurra ikuskizunari.

Lan honek 11 minutu eta erdi irauten du guzura; eta muntaiaren berri eman don EGUNKA atzo Getxon. Ga-

llastegik honela azaldu zuen bere asmoa: «Euskal Herriari buruz kanpoan sentitu dudana adierazi nahi izan dut; izan ere, Euskal Herritik kanpo dagoenak b4daki itsasoa urrun izateak zer esan gura duen».

Talde lana

Orroet bost partaide dira: Atxarte Lopez de Munain, Oiane Lopez de Munain, Isabel Quintana, Aitziber Baños eta Lexuri Gallastegi bera. «Dantza honetan denok pisu bera daukagu, uneoro bostok dantza egiten dugu, multzo bat gara eta protagonismoa itsasoari eta lurrari ematen diogu, gure mugimenduaren bitartez». Bosten artean banatzen dituzte egin

beharreko lan guztiak, nahiz eta Lexuri den esperientzia handiena duena. «Jantziak egiten ere Atxarte eta biok ibih gara», gaineratu zuen Gallastegik atzo.

Talde berria da Orroet, eta lehenengoz aurkeztu dute beren lana Koreografo Berrien Erakusketara. Taldekideek adierazi dutenez, dantza «oraindik ez dago bere onenetan gure artean». Laguntza beharrean dago dantza, bul-tzada behar du. «Baina hori mafia batean dantzarien lana ere bada, dantza kaleratu egin behar dugulako», gehitu du Gallastegik.

Gorputzaren arte erabilerari buruzko lantegia antolatu du Artelekuk

■ Ion Munduatek eta Blanca Calvok emango dute eta irekia da

Erredakzioa/Donostia

ARTELEKU guneak gorputz espresioari buruzko lantegi irekia antolatu du ekainaren leik 30era. Ion Munduatek eta Blanca Calvok es kainiko dute, baina zenbait gonbidatu izango dira: Jerome Bel koreografoa, Nao Bustamante performer-a, Jose Luis Vicario eskultorea, Jose A. Sanchez irakaslea, Legaleon T antzerki taldearekin eta La Ribot koreografoa.

Euskarri den aldetik gorputzarekiko kontzientzia esnatzea eta hortik abiatuz garatzea da Gorputzartean izeneko lantegiaren xedea. «Dantza eta antzerkia performancearekin gurutzatzeak diziplinaz gaindiko eremu bat sortu du, eszena diskurtso mota bat ahalbidetuz. Alde horretatik, interpretatzaileek jokalaria soilak izateari utzi diote eta beren gorputzarekin pentsatzen duten pertsona bihurtu dira», azaldu du Jose A. Sanchezek. Izena emateko epea maiatzaren Man amaituko da.

Bestalde, Estetika pentsamenduaren egungojoe-rak mintegia antolatu du Artelekuk, pentsamendu joeren egungo egoera aztertzeke. Maiatzaren 3tik 5era egingo da, eta sarrera librea da.

Erakusketak

■ HASI, gaur arratsaldean hasiko da Euskal Koreografo Berrien HLErakusketa. Jaialdia Lexuri Gallastegik zuzendutako Itsasoa eta lurra lana irekiko du, baina guztira zortzi koreografia aurkeztuko dira móstra honetan. Saio bakoitzak bi zati izango ditu. Lehen zatian Ruth Berikoetxea gasteiztarak Alfajarin taularatuko du. Begoña Krego santur-

tziarrak eta Blanca Arrieta bilbotarrak, berriz, Corta y cambia eta Yfuijéliz 14 dias plazaratuko dituzte, hurrenez hurren.

Saio bakoitzak bigarren zati bat ere ukanen du. Bigarren honetan, Bilbotik German Jauregik Leonzhino aurkeztuko du. Jauregi aurreko koreografoen erakusketan ere aritu zen dantzari bere

taldearekin. Ana Ser na getxotarra Flores cayendo en agua que corre lanarekin izango da Barakaldoko gaurko agerraldian. Azkenik, Nekane Santamariak eta Silvia Clemente donostiarrek beren azken lanak plazaratuko dituzte: Que no estamos solos, joder! eta Ponte verde alegia.

Gaur Barakaldoko antzokian ikusgai

izango diren zortzi lan hauek Donostiarako eta Gasteizera-ko bidea hartuko dute datozen asteotan. Hilaren 17an eta 22an, Victoria Eugenia eta Principal antzoldetan, hurrenez hurren, dantzari gazte hauek beren lanak aurkeztuko dituzte. Litekena da, gainera, Miarrizeko antzokian ere koreografo berrien dantzak ikusteko aukera